



Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2012ko urriaren 11ko bilerako ondorio nagusien sintesia:

- **Honako puntuen berri eman da:** Planen berrikusketa; Igorpen fokuen inbentarioa; Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astea; Compartir.org-en eskaintza; Kontratazio publikoan, bizitza-zikloaren kostuen kalkulu-pilotajerako taldea; Udalsarea 21 Sariak; 2012ko behin-behineko balantze ekonomikoa; Hegaztien migrazioari buruzko erakusketa; Laguntza eskaera Ekoeraginkortasun Programari; Lanbideko Enplegu Berdearen Programa.
- **Hiriko ortu ekologikoak:** udalen egoera eta beharrak berrikusi dira, eta prestakuntza saioak antolatzeko aukera balioetsi da.
- **Alkateen Itunerantz delakoarekin bat egitea:** udal gehienek auditorien bitartez plangintza energetikoan edota argiztapen publikoan dihardutenez, horietako gehienek ez diote zentzua aurkitu Itunerantz delakoarekin bat egiteari, ez delako abian denaren gainean balio erantsia duen zerbait.
- **Barne saioa, aparkatzeko politikari buruz:** urriaren 17an egingo da, 09:00etatik 11:00etara, Iraunkortasunaren Eskualde Bulegoan. Interesa duten Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udal guztietako udal arduradunak, teknikariak eta politikariak gonbidatuta daude.
- **Hondakinak prebenitzeko Europako Astea:** hurrengo ekintzak egingo dira: 1) Prentsa-oharrak argitaratuko dira, eskualdeko hondakinen kudeaketari buruzko balantzeekin: olioia, tonerra, pilak, arropa eta etxeko beste objektu batzuk; 2) "Eskualdeko hondakinen behatokia" abiaraztea, webgunearen bitartez, udalerrri bakoitzeko bilketa eta kostuei buruzko urterik urteko eskualdeko datu eta adierazleekin, bai eta hobekuntza proposamenak, praktika onak, iradokizunak eta abar ere. 3) Dibulgazio eta kontzientziazio kanpaina, behatokiaren dibulgazioa ardatz hartuta. 4) Hondakinak murrizteko espazioa webgunean, ideiekin, iradokizunekin, eta abarrekin; 5) Olioia biltzeari buruzko kontzientziazio kanpaina; 6) Rezikleta instalaziora bisita (azaroak 16); 7) Kontsumoari eta hondakinei buruzko Etxebizitza Berdeak programaren bigarren edizioa.
- **Etxebizitza Berdeak programaren 2. edizioa:** Etxebizitza Berdeak programaren bigarren edizioa antolatu da, Hondakinak Prebenitzeko Astea dela-eta; oraingo honetan, "Kontsumo arduratsua eta hondakinak" izango du ardatz.
- **Olioia biltzeko kanpaina:** dibulgazio eta kontzientziazio saioak antolatu dira hondakin honen gainean, Rafrinor, S.L. enpresarekin lankidetzan, interesa daukaten eskualdeko ikastetxeetan. Hitzaldi honen helburua da Lehen Hezkuntzako hirugarren, laugarren eta bosgarren mailetakoko ikasleen artean



birziklatzeko ohituraren inguruan interesa piztea, eta ohitura hori euren etxeetan zabaltzea.

- **Eskualde mailako erosketa eta kontratazio zerbitzua, jasangarritasun irizpideekin:** ontzat jo da proiektuari hasiera ematea laguntza teknikoaren kontratazioa abiatuz 2. faserako: bideragarritasun teknikoaren, juridikoaren eta ekonomikoaren azterketa. Gainera, informazioarekin eta sentsibilizazioarekin lagunduko zaie udaleko talde teknikoei eta politikoei.
- **Lan-eskaintza:** ontzat jo da Bulegoko teknikari baten amatasun-bajagatik ordezkapen-bitartekotasun kontratazioaren planteamendua.
- **Eskoletako jantokiak:** Urduñako ordezkariak ikastetxeetako jantokien batzarren eta agiriaren gaineko informazioa eman du.
- **Batzordearen hurrengo bilerak:** azaroaren 8an eta abenduaren 13an, 9:00etatik 11:00etara.